



FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure zerbitzua eskaintzeko, hainbat baliabide beharko ditugu bezeroak asetzeko. Karabana-alokairu zerbitzu bat da, eta gure bezeroek aukera izango dute herriz herri garraiatzeko prezio malgu baten truke.

Zerbitzu hura burutzeko, karabanak eta autoak *leasing* enpresa baten bitartez alokatuko ditugu. Ondoren, enpresaren egoeraren arabera, autoak eta karabanak erosteko aukera izango dugu.

Bestalde, gidariak beharko ditugu auto horiek gidatzeko. Gidariak haien lizentzia eguneratua eta gidabaimena izan beharko dute gure langileak izateko. Ahal izanez gero, esperientzia duten gidariak lehenetsiko ditugu.

Langileak alde batera utziz, bezeroekiko harremana hurbilagoa izan dadin, lokal bat alokatuko dugu. Bertan autoak zein karabanak ikusteko aukera izango dute bezeroek, baita zalantzak argitzeko ere. Gainera aukera ona izango da teknologiekin moldatzen ez direnentzat.



Espero dugu dena gurpil gainean joatea